

DIRU-ITURRIAK

Taldea: Kroketak

Idea: Gure taldeak euskal tradizioa sustatzeko baserri bat ipintzea erabaki du aterpetxe modura. Egonaldiaren truke, ohi dena baino diru kopuru txikiagoa ordainduko dute. Izan ere, bezeroek baserriko lanak egin beharko dituzte: baratza landu, uzta bildu, abereak elikatu...

Eskaintzen ari garen zerbitzuaren truke, bezeroek ohiko aterpetxeetan ordaintzen duten kantitatea baino txikiagoa ordainduko dute; izan ere, gainerako aterpetxeetan eskaintzen diren zenbait zerbitzu ez ditugu eskainiko. Halaber, euren beharrak asetzeko autosufizientzia beharko dute eta egiten duten lanaren isla, ordaindu beharko duten kantitatean nabarituko da. Gure bezeroek aterpetxean bertan dugun harreran ordaindu beharko dute modu hauetakoren batean: esku dirutan, txartelaren bidez edo Bizum bitartez.

Bezeroek ordainduko duten diru kantitatea izango da gure proiektuaren diru-sarrera nagusia. Proiektuaren hasian inbertsio handia egin beharko dugu, baserria erosi behar baitugu. Inbertsio horretara bideratutako diru-sarrerak, gobernuak bideratuko digu ehunekoaren zati bat, aterpetxeak eraikitzeke diru-laguntzak ematen dituzte eta. Gainerako dirua, taldekideen artean jarriko dugu bakoitzak %20a jartzen duelarik.